



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996ko abuztuaren 27a

47 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Legea, Fundazioen eta babes ihardueren tributu araubidea erregulatzen duena. Akats zuzenketa (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egindako zerbitzu eginkizun eta luzapen, atxikipen edo lekualdaketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—Iruñeko Bigarren Zabalguneko Osasun Eskualde Oinarrizkoaren beharrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Aizpurgiko hondakindegian antzemandako kutsadura kentzeko aurreikusi diren iharduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—Euskararen irakaskuntzarako salbuespen erregimenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

—Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaz NUPeko agintaritza organoek egindako arauketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

—“Club Deportivo Balarín-Señorío de Zuasti” gizonen saskibaloia taldearen balizko desagerpenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) antolaketa buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Nafarroako Parlamentuko Plantila Organikoa 1996ko urtarrilaren 1ean (20. or.).

—Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 1995eko abenduaren 31n (21. or.).

—«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen osaketa. Akats zuzenketa (22. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Fundazioen eta babes ihardueren tributu araubidea erregulatzen duena

AKATS ZUZENKETA

1996ko uztailaren 3ko 43 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Fundazioen eta babes ihardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996Foru Legeko Xedapen Indargabetzaileak 1992ko irailaren 2an onartu zen Foru Dekretuari buruz, kultura, soziokultura eta irakaskuntzan iharduten duten fundazio pribatuen Errolda arautzen duenari buruz, egin zuen aipuan oker bat badago-

ela atzeman da. Honenbestez, hona hemen zuzenketa beharrezkoa.

“Irailaren 2ko 277/1992 Foru Dekretua” esaten duen tokian, “Irailaren 2ko 278/1992 Foru Dekretua” esan behar du.

Iruñean, 1996ko abuztuaren 2a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F Saila:
GALDERAK

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egindako zerbitzu eginkizun eta luzapen, atxikipen edo lekualdaketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1. artikuluan ezarritakoa betez, Calixto Ayesa Dianda Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidean egindako zerbitzu eginkizun eta luzapen, atxikipen edo lekualdaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko ekainaren 21eko 40 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko uztailaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Osasun Kontseilariak, "Unión del Pueblo Navarro" Parlamentari Taldeko kidea den Calixto Ayesa Dianda jaunak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egindako zerbitzu eginkizunak eta luzapenak, atxikipenak edo lekualdaketei buruz egin duen galdera dela eta, idatzizko erantzuna eskatzen zuena, ondoren datorren erantzuna eman nahi du.

Zerbitzu eginkizunak (eta luzapenak), atxikipenak edo lekualdaketak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egindako deialdi publikotik at, 1995eko urriaren 1etik gaur egunera arte. Aipa bitez hurrengoak horietako bakoitzarendako:

- dagokion langilearen lanpostua.
- langilea zer lan zentrotik datorren.
- langilea zer lan zentrorra doan.
- zerbitzu-eginkizuna edo atxikipena eskatu duena nor den.
- zurrizko arrazoi edo zioak.
- oniritzia eman duen organoa.
- egoerari aurretik ikusten zaion iraupena.
- langilearen guztizko ordainketen aldaketarik dakarren ala ez, hala izatekotan, zein da aldaketa eta zer ordainketa-kontzeptuan.

Aurretik dauden zerbitzu eginkizunen luzapenei eta behin-behineko atxikipenei dagokienean, egin diren uneko iharduketek informazioa ematen da, egindako galderan sartzen diren xehetasunak eman gabe, xehetasun hauek, gaur egun, egoera horiek sortu ziren berberak baitira, hau da, galdera egiten duen parlamentaria Osasun Departamentuko Kontseilaria zenean zeuden berberak, eta, hortaz, galdegileak ezagutuko ditu ederki, edo hala uste izatekoa da.

A.- 95.10.01 ONDOREN EMAN DIREN ZERBITZU EGINKIZUNAK.

1.- Ukitutako langilea: Jesús Castillejo Catalán (Zaindaria)

Hasierako lantokia: Bideko Ama Birjina Ospitalea.

Bukaerako lantokia: O-NOZeko Zerbitzu Zentralak.

Zerbitzu eginkizunak eskatu dituen: Lan Harremanen Zuzendariordea.

Zioak: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Irunlarrea 39an dauzkan Bulego Zentraletan telefonoa hartu, bulegoak ireki eta ixteko etabar arratsaldeko txandan zegoen langileak amatasun baja eskuratu zuen 1996ko urtarrilaren 26an, eta ondoren, 1996ko maiatzaren 29an, amatasun-eszedentzia. Zerbitzu Zentraletan arratsaldeko txanda hau betetzeko langilerik ez zegoenez, Jesús Castillejo jaunari Zerbitzu Eginkizun egoeran esleitu zitzaion lanpostu hau sei hilabetez, 1996ko otsailaren 1etik aurrera kontatuta, Zaindari kategoriarekin. Esleipen hau egiteko orduan aintzat hartu ziren gaisotasun bajaran egonda, euren mugei egoki zetorkien lanposturik ez egoteagatik beren lan-zentruan tokirik aurkitu ezin izan zuten langileen eskariak.

Baimena ematen duen organoa: Langileriaren Kudeaketa eta Administrazioarako Zuzendariorde-tza.

Aurreikusiriko iraupena: Sei hilabete, 1996ko otsailaren 1etik aurrera.

Ordainketak: Aldaketarik gabe. Zaindari lanpostuari dagozkion ordainketak jasotzen ditu.

2.- Ukitutako langilea: Inés Fernandino Goñi (O.L.T.)

Hasierako lantokia: Nafarroako Ospitalea.

Bukaerako lantokia: "Vianako Printzea" Konsultategia.

Zerbitzu eginkizunak eskatu dituen: Nafarroako Ospitaleko Langileri Zuzendaria

Zioak: 1993ko ekainaren 16an, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Zuzendari Kudeatzaileak Purificación Berrio Gastón andrea izendatu zuen Nafarroako Ospitaleko Erradiodiagnostiko Erizaintza Unitateko aldibaterako Buru. Nafarroako Ospitaleko Kanpoko Kontsultak "Vianako Printzea" Zentrorra atxiki direnez, Anbulategietako Langileriaren Zerbitzu Buruak Purificación Berrio Gastón andrearen adskripzioa eskatu zuen. Adskripzio hori Giza Baliabideen Zuzendariaren 1994ko maiatzaren 2ko Ebazpenaren bidez egin zen. Purificación Berrio Gastón andreak Unitate Burutza egiten segitu zuenez, Nafarroako Ospitaleak Inés Fernandino Goñi andrea "Vianako Printzea" Konsultategira bidali zuen, aldibaterako, ukituaren aldeko zerbitzu eginkizuna eskatu eta are gutxiago baimendu ez zuelarik.

Egoera hau atzemanik, Nafarroako Ospitaleko Zuzendariak, 1996ko urtarialren 26an eskatu zuen egoera hau normalizatzea.

Baimena ematen duen organoa: Laguntza Espezializatuko Kudeaketa Zerbitzua eta Langileriaren Kudeaketa eta Administrazioarako Zuzendariorde-tza.

Aurrikusiriko iraupena: Sei hilabete, 1996ko martxoaren 1etik aurrera.

Ordainketak: Aldaketarik gabe. Kontsultako O.L.T. lanpostuari dagozkion ordainketak jasotzen ditu.

3.- Ukitutako langilea: María del Mar Horcada Ibáñez (emagina)

Hasierako lantokia: Tuterako Osasun Barrutia.

Bukaerako lantokia: Bideko Ama Birjina Ospitalea

Zerbitzu eginkizunak eskatu dituen: Nafarroako Ospitaleko Langileri Zuzendaritzak.

Zioak: Maria Teresa Tardío Rodríguez andrea, Bideko Ama Birjina Ospitaleko emagina, bajan sartu zen, L.A.T.engatik, 1995eko urrian, eta egoera honetan egon zen 1995eko azaroaren 13 arte, ondoren azaroaren 14an amatasun baja hartu zuelarik. Une hartan Zentroan sustatu zitekeen langilerik ez zegoenez, langabezian dagoen emaginek ez dagoenez, eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko Erditze Unitateko asistentzia-beharrak kon-tuan harturik, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Langileri Zuzendariak eskatu zuen María Mar Horcada Ibáñez andrea Zerbitzu Eginkizunean adskripzioa.

Baimena ematen duen organoa: Tuterako Osasun Barrutiko Langileri Zerbitzua eta Langileriaren Kudeaketa eta Administrazioarako Zuzendariordeak

Aurrikusiriko iraupena: 1995eko azaroaren 1etik 1996ko martxoaren 5era, orduan sartuko baita berriz María Teresa Tardío Rodríguez andrea.

Ordainketak: Aldaketarik gabe. Ospitaleko emagina lanpostuari dagozkion ordainketak jasotzen ditu.

4.- Ukitutako langilea: María del Mar Horcada Ibáñez (emagina).

Hasierako lantokia: Tuterako Osasun Barrutia.

Bukaerako lantokia: Bideko Ama Birjina Ospitalea

Zerbitzu eginkizunak eskatu dituen: Nafarroako Ospitaleko Langileri Zuzendariak.

Zioak: Maria Angeles Aranaz Jiménez andrea, Bideko Ama Birjina Ospitaleko emagina, amatasunezko eszedentzia hartu zuen 1995eko martxoaren 11n. Giza Baliabideen Zuzendariaren martxoaren 7ko Ebazpena medio, Blanca Ortiz de Landazuri O.L.T. sustatu zen emagina lanpostua Zerbitzu Eginkizunean aurrera eramateko sei hilabetez. Irailaren 8ko Ebazpenaren ondoren Zerbitzu Eginkizuna beste sei hilabetez luzatu zen, 1996ko martxoaren 10 arte. 1996ko otsailaren 26an beste luzapen bat eskatu zen, eta ez zen eman azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuak aurreikusten duen gehieneko epea gainditua zelako. Erabaki hau ikusirik, María del Mar Horcada andrearen aldeko Zerbitzu Eginkizuna eskatzen da. Administrazio eta Giza Baliabideen Zuzendariaren martxoaren 14ko Ebazpenak eman egin zuen.

Baimena ematen duen organoa: Tutera Osasun Barrutiko Langileri Zerbitzuburuak eta Langileriaren Kudeaketa eta Administrazioarako Zuzendariordeak.

Aurreikusiriko iraupena: 1996ko martxoaren 11tik titularea lanpostuan sartu arte.

Ordainketak: Aldaketarik gabe. Ospitaleko emagina lanpostuari dagozkion ordainketak jasozten ditu.

5.- Ukitutako langilea: José Javier Idoate Caballero (sukaldaria).

Hasierako lantokia: Nafarroako Ospitalea.

Bukaerako lantokia: Lehendakaritza Departamentua.

Zerbitzu eginkizunak eskatu dituena: Komunikabide Zerbitzuko Zuzendariak.

Zioak: Lehendakaritza Departamentuko Komunikabide Zerbitzuko Protokolo Atalean Sukaldari lanpostua betetzea.

Baimena ematen duen organoa: O-NOZeko Administrazio eta Giza Baliabideen Zuzendariak.

Aurreikusiriko iraupena: Urtebete, 1996ko apirilaren 1etik kontatzen hasita.

Ordainketak: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lanpostu horretarako aurreikusten diren oinarrizko ordainketak eta baita osagarriak ere. Gainera, lantoki berrian aritzeagatik zilegi diren konpentsazioak, Lehendakaritza Departamentuko Komunikabide Zerbitzuko 4816 plazaren kontura.

6.- Ukitutako langilea: Ione Aizarna Remen-tería (psikiatra).

Hasierako lantokia: II B Adimen Osasuneko Taldea.

Bukaerako lantokia: Adimen Osasuneko Zuzendariordetza.

Zerbitzu eginkizunak eskatu dituena: Ukitua bera.

Zioak: Haur-gazteentzako adimen osasuneko programa bat antolatzea, Gizarte Ongizatearekin eta Hezkuntzarekin lankidetzan. Beharrak eta baliabideen balorazioa eta berrantolaketa.

Baimena ematen duen organoa: Adimen Osasuneko Zuzendariordea.

Aurreikusiriko iraupena: Sei hilabete, 1996ko martxoaren 1etik aurrera.

Ordainketak: Aldaketarik gabe. Hau da, psikiatra jatorrizko lanpostuari dagokiona.

7.- Ukitutako langilea: Alvaro Gimeno Aznar (medikua).

Hasierako lantokia: Barañaingo O.O.L.T.

Bukaerako lantokia: Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza. Oinarrizko Osasun Laguntzako Espezialitate Programak Koordinatzeko Unitatea.

Zerbitzu eginkizunak eskatu dituena: Oinarrizko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuneko Zuzendaritza.

Zioak: Oinarrizko Osasun Laguntza Zuzendaritzari aholkularitza teknikoa ematea, Zuzendaritzak markatu dituen helburuak garatzeko bereziki interresgarriak diren gaitan.

Baimena ematen duen organoa: Oinarrizko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuneko Zuzendaritza.

Aurreikusiriko iraupena: 12 hilabete, 1995eko azaroaren 1etik hasita (luzapena ere barne).

Ordainketak: Aldaketarik gabe. O.O.L.T.eko mediku lanpostuari dagozkion ordainketak jasozten ditu.

8.- Ukitutako langilea: Ana Granado Hualde (O.L.T.)

Hasierako lantokia: Ermitagañako O.O.L.T.

Bukaerako lantokia: Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza. Oinarrizko Osasun Laguntzako Espezialitate Programak Koordinatzeko Unitatea

Zerbitzu eginkizunak eskatu dituena: Oinarrizko Osasun Laguntza eta adimen Osasuneko Zuzendaritza.

Zioak: Oinarrizko Osasun Laguntza Zuzendaritzari aholkularitza teknikoa ematea, Zuzendaritzak markatu dituen helburuak garatzeko bereziki interresgarriak diren gaitan.

Baimena ematen duen organoa: Oinarrizko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuneko Zuzendaritza.

Aurreikusiriko iraupena: 12 hilabete, 1995eko urriaren 6tik hasita (luzapena ere barne).

Ordainketak: Aldaketarik gabe. O.O.L.Teko O.L.T lanpostuari dagozkion ordainketak jasozten ditu.

9.- Ukitutako langilea: Felipa Osés Zudaire (O.L.T.)

Hasierako lantokia: Txantreako O.O.L.T.

Bukaerako lantokia: Oinarrizko Osasun Laguntzaeta Adimen Osasuneko Zuzendaritza. Irakaskuntza eta Prestakuntza Unitatea.

Zerbitzu eginkizunak eskatu dituena: Ukitua bera.

Zioak: Irakaskuntza Unitatearen beharrak.

Baimena ematen duen organoa: Iruñeko Osasun Arloko Zuzendariordea.

Aurreikusiriko iraupena: 1995eko urritik 1996ko ekainaren 30 arte (luzapena ere barne).

Ordainketak: Aldaketarik gabe. Jatorrizko lanpostuari dagozkionak.

10.- Ukitutako langilea: Antonio Brugos Larumbe (medikua).

Hasierako lantokia: Errotxapea-Antsoaingo O.O.L.T.

Bukaerako lantokia: Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza. Oinarrizko Osasun Laguntzako Espezialitate Programak Koordinatzeko Unitatea

Zerbitzu eginkizunak eskatu dituena: Oinarrizko Osasun Laguntz eta Adimen Osasuneko Zuzendaritza.

Zioak: Oinarrizko Osasun Laguntza Zuzendari-tzari aholkularitza teknikoa ematea, Zuzendaritzak markatu dituen helburuak garatzeko bereziki interresgarriak diren gaietan.

Baimena ematen duen organoa: Oinarrizko Osasun Laguntz eta Adimen Osasuneko Zuzendaritza.

Aurreikusiriko iraupena: Sei hilabete, 1995eko azaroaren 1etik kontatzen hasita. Urtarrilaren 29ko 91/1996 Foru Dekretuaren bidez, Osasun Departamentuko Plangintza eta Koordinazio Ataleko Buru izendatzen da.

Ordainketak: Aldaketarik gabe. Jatorrizko lanpostuari dagozkionak.

11.- Ukitutako langilea: Laura Lecumberri Esparza (O.L.T.)

Hasierako lantokia: Errotxapea-Antsoaingo O.O.L.T

Bukaerako lantokia: Nafarroako Emakumearen Institutua.

Zerbitzu eginkizunak eskatu dituena: Nafarroako Emakumearen Institutuko Zuzendaria.

Zioak: Titia emateko Programa abian jarri eta garatzea.

Baimena ematen duen organoa: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Zerbitzu Zentralak.

Aurreikusiriko iraupena: 12 hilabete, 1996ko azaroaren 1etik hasita.

Ordainketak: Nafarroako Emakumearen Institutuko 4525 zenbakiko plazari dagozkionak, B maila, gradu ertaineko teknikaria, bete gabea.

B.- 95-10-01 ONDOREN EMAN DIREN ATXIKIPENAK.

1.- Ukitutako langilea: Jerusalén Núñez Rosón (administrari laguntzailea)

Hasierako lantokia: Bideko Ama Birjina Ospitalea.

Bukaerako lantokia: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Zerbitzu Zentralak

Atxikipena eskatu duena: Administrazio eta Giza Baliabideen Zuzendaritza

Zioak: 1995eko ekainaren 15ean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendariaren Idazkariak baja hartu zuen aipatu erakunde honetan, lekualdatze lehiaketaren bidez lortu baitzuen plaza bat Nafarroako Parlamentuan. Egun hartatik aurrera, administrari laguntzaileari dagozkion funtzio zehatzak zeuzkan lanpostu hau bete gabe egon da, nahiz eta Zerbitzu Zentraletako langileriar, lanpostuaren profila betetzen zutenei, eskaini zitzaizen. Betetzea beharrezkoa zenez, berau Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentro guztiei eskaini zitzaizen, eta Jerusalén Núñez Rosón andreak aditzera eman zuen bera prest zegoela lanpostua betetzeko.

Baimena ematen duen organoa: Bideko Ama Birjina Ospitaleko Langileri Zuzendaritza eta Langileri Administrazio eta Kudeaketa Zuzendariordea.

Aurreikusiriko iraupena: Sei hilabete, 1996ko ekainaren 1etik hasita.

Ordainketak: Administrari Laguntzaile lanpostuari dagozkionak.

2.- Ukitutako langilea: Inés Abad Gutiérrez (Zerbitzaria)

Hasierako lantokia: Ospitale Psikiatrikoa.

Bukaerako lantokia: Foshez-Andraizea.

Atxikipena eskatu duena: Ukitua bera.

Zioak: Tokiz aldatzea muga fisikoak direla eta, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuaren txostenarekin.

Aurreikusiriko iraupena: 1995eko urriaren 15etik 1996ko ekainaren 30era (luzapena ere barne).

Ordainketak: Aldaketarik gabe. Jatorrizko lanpostuari dagozkionak.

3.- Ukitutako langilea: Mercedes Hernández Sánchez Rico (medikua).

Hasierako lantokia: Errotxapea-Antsoaingo O.O.L.T

Bukaerako lantokia: Ermitagañako O.O.L.T.

Atxikipena eskatu duena: Ukitua bera.

Zioak: Tokiz aldatzea muga fisikoak direla eta, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuaren txostenarekin.

Baimena ematen duen organoa: Iparraldeko Oinarrizko Osasun Laguntzaren Zuzendariordea.

Aurreikusiriko iraupena: Sei hilabete, 1996ko maiatzaren 1etik aurrera.

Ordainketak: Aldaketarik gabe. O.O.L.T.eko mediku lanpostuari dagozkion ordainketak jasotzen ditu.

4.- Ukitutako langilea: Asunción Indurain Orduna (administrari laguntzailea).

Hasierako lantokia: Adimen Osasuneko Zuzendariordekoa.

Bukaerako lantokia: I A Adimen Osasun Taldea.

Atxikipena eskatu duena: Ukitua bera.

Zioak: Plantilaren berrantolaketa, Adimen Osasuneko Zuzendariordekoan administrazio langile gehiegi eta aldiz I A A.O.T delakoan gutxiegi zegoelako.

Baimena ematen duen organoa: Adimen Osasuneko Zuzendariordea.

Aurreikusiriko iraupena: 1996ko otsailaren 1etik 1996ko uztailaren 31ra.

Ordainketak: Aldaketarik gabe. Jatorrizko lanpostuari zegozkionak.

5.- Ukitutako langilea: José Ramón Fernández Pérez (biltegi arduraduna)

Hasierako lantokia: Nafarroako Ospitalea.

Bukaerako lantokia: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Zerbitzu Zentralak.

Atxikipena eskatu duena: Administrazio eta Giza Baliabideen Zuzendaritza.

Zioak: 1992ko irailaren 22an Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Administrazio eta Idazkaritzako Zuzendariak José Ramón Fernández Pérez atxikitzea eskatu zuen, uste zuelarik pertsonarik egokiena zela Hornidura eta Biltegi Proiektuari buruz ezarritako lan-plangintza bete ahal izateko. Ukitua konforme zegoelarik, Giza Baliabideen Zuzendariaren 1992ko urriaren 14ko Ebazpenaren bidez aipatu funtzionarioa Administrazio eta Idazkaritza Zuzendaritzari atxiki zitzaion behin-behineko izaeraz. 1993ko martxoaren 16 Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Zuzendari Kudeatzaileak Fernández jauna Hornidura Zerbitzuko Produktuak Kodetzeko eta Biltegiak Kudeatzeko Unitateko Buru izendatu zuen, aldibaterako. 1996ko apirilaren 29an Administrazio eta Giza Baliabideen Zuzendariak eskatu zuen behin betiko atxikipena, hornidura-lana eta informatikako tresnak ezagutzen zituenez, eta Hornidura Arloak hasitako bideari jarraipena emateko amoreagatik, Kontuen Ganbararen aholkuekin bat etorri.

Baimena ematen duen organoa: Nafarroako Ospitaleko Zuzendaritza, Langileri Administrazio eta Kudeaketa Zuzendariordea eta Osasuneko Ogasun Kontuhartzaitza Delegatua.

Aurreikusiriko iraupena: Behin betiko atxikipena, aurrekontu-lerroen aldaketarekin.

Ordainketak: III Motako Unitateko Burutzari dagozkionak, C maila.

6.- Ukitutako langilea: Paula Iturri Irigaray (O.L.T.)

Hasierako lantokia: Nafarroako Ospitalea.

Bukaerako lantokia: "Vianako Printzea" Kontsultategia.

Atxikipena eskatu duena: Laguntza Espezializatutako Anbulategietako Langileriaren Zerbitzuko Burua.

Zioak: General Solchaga Anbulategiko Pediatría Kontsulta langile egokiez hornitzea..

Baimena ematen duen organoa: Nafarroako Ospitaleko Zuzendaritza, Langileriaren Kudeaketa eta Administraziorako Zuzendariordea eta Osasuneko Ogasun Kontuhartzaitza Delegatua.

Aurreikusiriko iraupena: Behin betiko atxikipena, 1995eko urriaren 1etik aurrera, aurrekontu-lerroen aldaketarekin.

Ordainketak: Kanpoko Kontsultetako O.L.T. bati dagozkionak.

7.- Ukitutako langilea: María de la O Aizpún Armendáriz (O.L.T.)

Hasierako lantokia: Bideko Ama Birjina Ospitalea.

Bukaerako lantokia: "Vianako Printzea" Kontsultategia.

Atxikipena eskatu duena: Laguntza Espezializatuko Anbulategietako Langileriaren Zerbitzuko Burua.

Zioak: "Vianako Printzea" Kontsulta Zentroko Haur Endokrinologia plantila osatzea.

Baimena ematen duen organoa: Nafarroako Ospitaleko Zuzendaritza, Langileria Administrazio eta Kudeaketa Zuzendariordea eta Osasuneko Ogasun Kontuhartzailatza Delegatua.

Aurreikusiriko iraupena: Behin betiko atxikipena, 1995eko urriaren 1etik aurrera, aurrekontu-lerroen aldaketarekin.

Ordainketak: Kanpoko Kontsultetako O.L.T. bati dagozkionak.

C.- 95-10-01 ONDOREN EGINDAKO LEKUALDAKETAK.

1.- Ukitutako langilea: Puy Uribe San Martín (O.L.T.)

Hasierako lantokia: Bideko Ama Birjina Ospitalea.

Bukaerako lantokia: "Vianako Printzea" Kontsultategia.

Atxikipena eskatu duena: Ukitua bera.

Zioak: Puy Uribe andreak bere jatorrizko lanpostua normaltasunez betetzeko duen traba fisikoak ikusirik, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak erabaki zuen ukitua beste lanpostu batean ari daitekeela. 1995eko abenduaren 31n, tokiz aldaketetarako Batzorde Zentralak, euren lan zentroetan tokiz aldatu ezin zitezkeen langileen eska-riak aztertu eta gero, proposatu zuen Puy Uribe andrea Laguntza Berezituetako Anbulategietako O.L.T. lanpostua betetzeko.

Baimena ematen duen organoa: Langileriaren Kudeaketa eta Administrazioarako Zuzendariorde-tza.

Aurreikusiriko iraupena: Behin betiko atxikipena, 1996ko martxoaren 1etik aurrera, 133 zenbakiko plaza bete gabera.

Ordainketak: Kanpoko Kontsultetako O.L.T. bati dagozkionak.

D.- 95-10-01 BAINO LEHEN EMANDAKO ZERBITZU EGINKIZUNEN LUZAPENAK.

Aipatu egun hori baino lehen emandako Zerbitzu Eginkizunen luzapenak, 1995eko urriaren 1 eta gero emanikoak, eraskin gisan gehitzen den koadroan ikus daitezke.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezarritakoa betez.

Iruñean, 1996ko uztailaren 19a

Osasun Kontseilaria: Fernando Puras Gil

IZEN- DEITURAK	LANPOSTUA	HASIERAKO ZENTROA	BUKAERAKO ZENTROA	Z.E. ESKATU DITUENA	BAIMENA EMATEN DUENA	HASIERAKO DATA	AURREIKUSITAKO IRAUPENA	ORDAINKETAN ALDAKETARIK
Aldaya Díez, María Teresa	Admin. Ofiz.	Nafarroako O. Oinarritzko Laguntza		Ukitua	O-NOZ G.B.Z.	92-10-01	96-09-30	Ez
Alvarez Díaz, Nieves	Erizain Lagun.	Bideko Ama B. O.	Albacete	Madrilgo Insalud	O-NOZ Z.N.	90-12-05	97-01-03	?
Aristu Munárriz, Marta	L.T.E.	Lizarrako Barrutia	Nafarroako O.	Ukitua	O-NOZ G.B.Z.	95-06-00	96-09-30	Ez
Cerdán Herrero, J. Manuel	Zaindaria	Lizarrako Barrutia	Tutera	Ukitua	O-NOZ G.B.Z.	94-06-01	96-12-31	Ez
Cía Lecumberri, Teresa	A.F.E.	Tutera	Ubarmin	Ubarmin	O-NOZ G.B.Z.	93-01-11	97-01-10	Ez
Corral Noreña, Beatriz	O.L.T.	Bideko Ama B. O.	A.O.Z.	S.A.S.	O-NOZ Z.N.	93-10-25	96-10-24	?
Cuenca Lafuente, Teresa	Administ. lagun.	Barañaingo O.O.L.T.	Madril	Madril	O-NOZ Z.N.	95-07-01	96-06-30	?
Erviti Erice, Iosune	O.L.T.	Osakidetza	Bideko Ama B. O.	Ukitua	Osakidetza	91-06-12	96-06-11	?
Espada Pueyo, Asunción	O.L.T.	Bideko Ama B. O.	C.C.E.P.V.	Anbulategiak	O-NOZ G.B.Z.	95-02-01	96-07-31	Bai
Esteban Vidarte, Dominica	Klinika Lagun.	Nafarroako O.	Especializ.	Nafarroako O.	O-NOZ G.B.Z.	94-05-18	96-08-17	Ez
Eza Moreno, Lucas	Zaindaria	Nafarroako O.	Tutera	Ukitua	O-NOZ G.B.Z.	94-08-01	96-12-31	Ez
Fonseca Urquía, Rosa	Fisioterap.	Nafarroako O.	C.C.E.P.V.	C.C.E.P.V.	O-NOZ G.B.Z.	95-08-03	96-08-02	Ez
Gallego Bargada, Rosa	L.T.E.	C.C.E.P.V.	I. Unitate Biomedikoa	I. Unitate Biomedikoa	O-NOZ G.B.Z.	94-11-23	97-02-22	Ez
González Calles, Francisco P.	Zaindaria	Nafarroako O.	Osakidetza	Osakidetza	O-NOZ Z.N.	95-04-12	96-10-11	?
González Ramajos, Carmen	Erizain Lagun.	Bideko Ama B. O.	Osakidetza	Osakidetza	O-NOZ Z.N.	94-10-23	96-10-22	?
Goya Arive, María Angeles	Gizarte Lang.	Berriozarreko O.O.L.T.	O.P.I.	O.P.I.	Funtzio Publikoa	93-03-01	96-12-31	?
Igea Jiménez, Raúl	Zaindaria	Bideko Ama B. O.	Tutera	Ukitua	O-NOZ G.B.Z.	95-01-17	96-12-31	Ez
Jiménez Oroz, Blanca	Zerbitzaria	Nafarroako O.	Zizurreko O.O.L.T.	Ukitua	O-NOZ G.B.Z.	94-03-21	96-09-20	Ez
Lainez Cabezón, Idoia	O.L.T.	Osakidetza	Lizarra	Ukitua	Osakidetza	91-10-01	96-09-30	?
Larrión Zugasti, J. Luis	A.F.E.	Toledo	Ubarmin	O-NOZ G.B.Z.	Madrilgo Insalud	92-12-14	96-06-13	?
Marro Ugalde, Vicente	L.T.E.	Lizarra	Nafarroako O.	Ukitua	O-NOZ G.B.Z.	95-06-15	96-12-14	Ez
Mateo Sainz, María Carmen	Sukaldaria	Tutera	Bideko Ama B. O.	Tutera	O-NOZ G.B.Z.	95-01-01	96-12-31	Ez
Oria Mundín, Eugenio José	Dietetika Irakaslea	Hezkuntza eta Kultura	Nafarroako O.	Nafarroako O.	Funtzio Publikoa	92-02-01	96-12-31	Ez
Paloma Mora, María José	A.F.E.	Tutera	Bideko Ama B. O.	Ukitua eta Nafarroako O.	O-NOZ G.B.Z.	93-02-22	96-08-21	Ez
Pérez Muniáin, Milagrosa	O.L.T.	Bideko A. B. O.	Elizondoko O.O.L.T.	Ukitua	O-NOZ G.B.Z.	95-04-03	96-10-02	Ez

IZEN- DEITURAK	LANPOSTUA	HASIERAKO ZENTROA	HASIERAKO ZENTROA	BUKAERAKO ZENTROA	Z.E. ESKATU DITUENA	BAIMENA EMATEN DUENA	HASIERAKO DATA	AURREIKUSITAKO IRAUPENA	ORDAINKETAN ALDAKETARIK
Pérez Arrarás, Teresa	O.L.T.	Bideko Ama B. O.	C.C.E.P.V.	Ukitua	O-NOZ G.B.Z.	94-01-30	96-07-29	Ez	
Querol Nasarre, Ignacio	A.F.E.	S.A.S	Tutera	SNS-O	A.O.Z..	92-12-03	96-06-02	?	
Rodríguez Marquínez, Ter.	L.T.E.	Nafarroako O.	I. Unitate Biomedikoa	I. Unitate Biomedikoa	O-NOZ G.B.Z.	94-12-01	97-02-28	Ez	
Roncal Guardia, Jesusa	O.L.T.	Bideko Ama B. O.	Burgos	Madrilgo Insalud	O-NOZ Z.N.	94-09-19	96-09-18	?	
Santos Ramírez, Blanca	O.L.T.	Bideko Ama B. O.	Madrid	Madrilgo Insalud	O-NOZ Z.N.	95-01-01	96-06-30	?	
Sera Fillat, Argentina	O.L.T.	Bideko Ama B. O.	Kataluniako I.	Kataluniako I.	O-NOZ Z.N.	95-02-20	96-08-19	?	
Tejedor Gutiérrez, Martín	A.F.E.	Kanariak	Nafarroako O.	Nafarroako O.	Kanarietako Zerb.	92-10-14	96-10-14	?	
Urquizar Saez, Angustias	Emagina	Bideko Ama B. O.	A.O.Z..	A.O.Z..	O-NOZ Z.N.	94-07-06	96-07-05	?	
Varela Domínguez, José	A.F.E.	Bideko Ama B. O.	Osakidetza	Osakidetza	O-NOZ Z.N.	90-10-01	96-09-30	?	
Vázquez Durán, Pilar	O.L.T.	Madrid	Bideko Ama B. O.	Ukitua	Madrilgo Insalud	91-12-01	96-05-31	?	
Alemán Irungaray, Isab.	O.L.T.	Elizondo	Elizondoko cofes	Ukitua	Oinarritzko Laguntzaren Langileri Zerb. Burua	95-01-14	96-09-30	Ez	
Arroyo Anies, Pilar	Medikua	Txantrea	Oinarritzko O. Laguntza	Oinarritzko O. Laguntza	Oinarritzko Laguntzaren Langileri Zerb. Burua	95-05-20	96-07-31	Ez	
Flórez Busto, Pilar	Osasun Hezitzailea	Cofes	Berriozar	Ukitua	Oinarritzko Laguntzaren Langileri Zerb. Burua	95-08-01	96-06-30	Ez	
Hidalgo Otero, Vicente	Medikua	Burlata	Oinarritzko O. Laguntza	Oinarritzko O. Laguntza	Oinarritzko Laguntzaren Langileri Zerb. Burua	95-04-01	96-06-30	Ez	
Iroz Arraiza, Victoria	Administratari lagun.	Etxarri	Barañain	Ukitua	Oinarritzko Laguntzaren Langileri Zerb. Burua	95-07-01	96-06-30	Ez	
Loayssa Lara, José R.	Medikua	Txantrea	Oinarritzko O. Laguntza	Oinarritzko O. Laguntza	Oinarritzko Laguntzaren Langileri Zerb. Burua	94-08-01	96-11-30	Ez	
Muruzabal Irogoyen, Ana	Medikua	Irati ibaia	Amaiturko Gaztelua	Ukitua	Oinarritzko Laguntzaren Langileri Zerb. Burua	95-02-22	96-08-19	Ez	
Olimedo Cruz, Oscar	Medikua	Auritz	Ermitagaina	Oinarritzko O. Laguntza	Oinarritzko Laguntzaren Langileri Zerb. Burua	94-09-15	96-06-30	Bai. Barreiatze eta Kapitazioa	
Ruiz Puertas, Isable	Pediatría	Elizondo	Orkoien	Ukitua	Oinarritzko Laguntzaren Langileri Zerb. Burua	93-03-01	96-11-30	Bai. Barreiatze eta Kapitazioa	
Sánchez Echenique, M.	Pediatría	Zangoza	Atarrabia	Ukitua	Oinarritzko Laguntzaren Langileri Zerb. Burua	99-04-13	96-08-31	Bai. Barreiatze eta Kapitazioa	

Iruñeko Bigarren Zabalguneko Osasun Eskualde Oinarrizkoaren beharrei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1. artikuluan ezarritakoa betez, Calixto Ayesa Dianda Foru Parlamentari jaunak Iruñeko Bigarren Zabalguneko Osasun Eskualde Oinarrizkoaren beharrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko ekainaren 7ko 34 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko uztailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Osasun Kontseilariak, "Unión del Pueblo Navarro" Parlamentari Taldeari atxikitako Calixto Ayesa Dianda Foru Parlamentari jaunak idatzizko erantzuna eskatzen zuen galdera, Iruñeko Bigarren Zabalguneko Osasun Eskualde Oinarrizkoaren beharrei buruzkoa dela eta, honako erantzun hau igorri du:

1.- Zein da Bigarren Zabalguneko Eskualde Oinarrizkoaren osasun mailako beharren azterketa, biztanle-kopuru, adin eta abarren arabera, aurrekontuko kapitulu bakoitzeko kostua eta biztanleko gastua adieraziz?

Ez da ongi ulertzen galderaren esanahia, "osasun mailako beharren azterketa" aipatu eta aurrekontuei egiten baitie aipamena.

Uste dugu beharbada aipatu nahi duena Bigarren Zabalguneko baliabideei dagokienez egungo dotazioa eta, aurreikuspenaren arabera, berrikuntza egin eta Oinarrizko Osasun Laguntzako Talde bilakatu ondoren izango duenaren artean dagoen ezberdintasuna dela.

Hona hemen egungo baliabideak eta etorkizunerako aurreikusitakoak biltzen dituen konparaketa-koadroa.

	Egun		Aurreikusia
	Lan eguna 2,5 o.	Lan egun osoa	Lan egun osoa
Mediku Orokorrak	9	0	10
Pediatrak	3	-	2
OLT/EDU	2	8	12
Gizarte Langilea	0	-	1
Adm. Laguntzailea	-	4	4
Zaindariak	-	2	1

Ihardutze kostuei dagokienez, aurrekontu kapituluka eta "per capita"k, egungoak eta etorkizunekoak, honako hauek zenbatets ditzakegu:

	Egun	Aurreikusia
I Kapitulua	135.356.456	192.732.680
II Kapitulua	18.238.141	24.015.387
Guztira	153.594.597	216.748.067

	Egun	Aurreikusia
Gastua/per cap.		
Farmaziarik gabe	8.000	11.290

2.- Non eraikiko da Bigarren Zabalguneko Osasun Etxea eta zer egutegi dago eraikuntza hau egiteko?

Bigarren Zabalguneko Osasun Etxea eraikitze-ko tokiak aurreko Legegintzaldian aurreikusitakoa izaten jarraitzen du, General Solchaga Anbulategia alegia; uste dugu horren birmoldaketa honako egutegi honen arabera burutuko dela:

Obren Hasiera: 1997ko uztailaren 1a

Obren amaiera: 1998ko ekainaren 30a

3.- Ba al da 1996ko aurrekontuan horretarako kontusailik? Ba al da proiekturik? Baiezkoan, zenbat jotzen du?

Proiektua egiterakoan atzerapena izan da, hasieran aurreikusitako Ihardun Programa aldatu delako.

Izan ere, ez da bidekotzat jo General Solchagan kokatzea Laguntza Espezializatuko beharren ebaluazio berria eta eraikin osoa laguntza-iharduerarako erabiliko da.

Bigarren Zabalguneko Osasun Etxeari buruzko Ihardun Programa aztertu bai baina ez da aldatu.

Jakina denez, ez da aurrekontu dotazio zehatzik izaten Osasun Etxe jakin bat edo beste baterako; dena den, ez da aurrekusi obrak 1996an zehar hastea.

4.- Baldin eta, antza denez, Osasun Departamentua eta Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza ezarri ahal izateko, bulegoak prestatzeari lehentasuna eman bazaio Bigarren Zabalguneko Eskualde Oinarrizkoa ezartzearen aurrean, nola bateratuko dira biztanleriaren laguntza

beharrak eta Bigarren Zabalgunean lokalak edukitzea?

Inolaz ere ez zaio lehentasunik eman bulegoak prestatzeari, Osasun Etxearen eraikuntzaren aurrean. Horren adibide argia da ez zaiola osasun aurrekontuko inolako kontusailik egokitu bulegoak prestatzeari.

General Soltxagari buruzko proiektuan izandako atzerapenak zerbitzu espezializatuen kokapenari buruz egin den berraztertze teknikoak eragin ditu eta inolaz ere ez bulegoak prestatzeari fondotak egokitzeagatik aurrekontuan sorturiko nahikotasun ezak.

Izan ere, Conde Olivetoko bulegoen birmoldaketa Ondasun Zerbitzuko aurrekontuaren kargura egin da eta Departamentuetako Egoitzak arrazionaltzeko duen politikaren emaitza da.

Hortaz, adierazitakoak erakusten du Zuzendaritza honek ez diola inolaz ere uko egin Bigarren Zabalguneko biztanleen laguntza beharrak asetzeko helburuari, eta Zuzendaritza honi ez dagozkion kanpoko zioek eragin dute atzerapena.

5.- Gaur egungo Osasun Departamentua eta Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzaren egoitzak behin-behinekoak edo behin betikoak dira?

Aipatu den Egoitzak arrazionaltzeko politika honen ondorioz, Nafarroako Gobernuak Erabakia hartu du 1996ko ekainaren 10ean, Egoitzak kokatzeari dagokion Higiezinei buruzko Plana onesten duena; Plan horretan azaldu da Conde Olivetoko eraikinean Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Amaya 2koan Osasun Departamentuak izango dituztela euren behin betiko egoitzak.

Conde Olivetoko eraikina Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egoitza bihurtzeko erabakiak aurrezki handia ekarriko du O-NOZerako Zerbitzu Nagusien egungo egoitza zein Adimen Osasuneko Zuzendariordetzaren alokairue-

tan, eta hainbat zerbitzu espezializatu birkokatzeara behartuko du; honek justifikatzen du Espezializatuko Ihardun Progrmaren azterketa berriaren beharra, eta azken finean azterketa horrek eragin du, esan bezala, General Soltxagari buruzko Proiektua egiterakoan atzerapena.

6.- Zeintzuk dira Osasun Departamentua eta Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako bulegoak prestatzeko aurreikusten den proiektu teknikoaren oinarrizko ildoak, eta zein aurreikusten den gastuaren aurrekontu zehatza?

Egun Conde Olivetoko eraikinaren 4. solairua eta 3.aren erdia birmoldatzeari ekin zaio, bertan hurrengo zerbitzuak kokatu ahal izateko:

- Adimen Osasuneko Zuzendariordetza.
- Farmazi Prestazioen Zerbitzua.
- Antolamendu Zerbitzua.
- Prestazio eta Itun Zerbitzua.

Conde Olivetoko lanek bidea emango diote Amaya 2ko eraikina irailaren 1a baino lehen hustutzeari, eta une horretan aipatu eraikina berritzeari ekingo zaio, bertan behin betiko Osasun Departamentua eta behin-behinek Gizarte Ongizate Zuzendaritza Nagusia kokatzeko asmoz.

Conde Olivetorako aurreikusi den aurrekontuak 50 milioi pezeta jotzen zuen, baina obra 42.638.702 pezetatan esleitu da.

Amaya kaleko obrari dagokionez, ez da oraindik amaitu horri buruzko azterketa eta, beraz, ez dago eskura aurrekontu zehatza; izan badira esku sartzeko hainbat aukera, eta horien artean gutxieneko esku sartzea ekarriko duen proposamena aukeratzeko asmoa dago.

Hau guztia jakinarazi nahi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa betez.

Iruñea, 1996ko uztailaren 22a

Osasun Kontseilaria: Fernando Puras Gil

Aizpurgiko hondakindegian antzemandako kutsadura kentzeko aurreikusi diren iharduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Aizpurgiko hondakindegian antzemandako kutsadura kentzeko aurreikusi diren iharduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko ekainaren 14ko 37 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko uztailaren 30a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, "Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida" Parlamentari Taldeko kidea den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Aizpurgiko hondakindegian antzemandako kutsadura kentzeko aurreikusi diren iharduketei buruz egindako galdera dela eta, idatzizko erantzuna behar zuena, honako erantzun hau igorri du:

1.- Hondakindegia funtzionamendu okerrak eta eraikuntza akatsek eragindako kutsadura kentzeko neurriak gauzatzearen erantzukizuna horren sustatzailea den Eska eta Zaraitzuko Mankomunitateari dagokio, eta bakarrik subsidiarioki iharduera sailkatuen arloan eskumenak dituzten Administrazioei, Nabaskoizeko Udalarari eta, Ingurugiro Departamentuaren bitartez, Nafarroako Gobernuari; hauek ihardun beharko dute inguruabarren apartekotasunak eskatzen badu.

Ihardun horiek betetzeko asmoz, Ingurugiro Departamentutik behar diren errekerimenduak egin zaizkio Mankomunitateari akats horiek zuzen ditzan.

Aldi berean, hainbat lan bilera burutu da, bertan Toki Administrazio Departamentuko teknikariek ere hartu dutelarik parte, akatsen zioa analizatu eta horiek zuzentzeko hartu behar diren neurri eraginkorrenei buruz aholkua emateko.

Egun Eska eta Zaraitzuko Mankomunitatea neurri horiek proiektatu eta beranduago, eguraldiaren ikuspegitik egokien den aldian, gauzatzeko beharrezkoak diren datuak biltzen ari da, enpresa espezializatu baten laguntza teknikoarekin.

Obra hauek amaitzeko Mankomunitateak onuragarri izango ditu Toki Administrazio Departa-

mentuak 1996rako toki azpiegituren obrei buruzko Planean aurreikusitako laguntzak.

Bien bitartean, libiatuak bilketa-uharkan bildu eta Zangotzako ur zikinen araztegiara eramaten ari dira, bertan tratatuak izateko.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua behar den arretaz jarraitzen ari zaio hondakindegia honen baldintzen bilakaerari, beti ere Toki Administrazio Departamentuarekin etenik gabeko harremanetan, Eska eta Zaraitzuko Mankomunitateak behar diren iharduerak egin ditzan, antzemandako akatsek eragiten duten kutsadura kendu eta emaniko zerbitzu publikoa ingurugiroari dagokionez zuzen funtzionaraziko dutenak.

2.- Apartekoak diren subrogazio kasuetan izan ezik, horietan obren kudeaketaz (esleipena, zuzendaritza, ziurtagirien ordainketa, e. a.) Toki Administrazio Departamentua jabetzen baita, toki entitateak izaten dira organo eskudunak esandako iharduerak burutzeko. Aztertzen ari garen kasuan, Eska eta Zaraitzuko Mankomunitatea bera, obren kudeaketa eta jarraipenari dagokionez, lehen aipaturiko iharduerak garatu dituen organo eskuduna izanik, Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuak ez du inolako neurririk hartuko Ginés Navarro, S.A. enpresa eraikitzaileari buruz, ez baitagokio horren eskumena.

Kontrolpeko hondakindegia eraikuntzan antzemandako eraikuntza-akatsi dagokienez, bereiztu behar dira eraikuntza-enpresa eraikitzaileari zuzenean egotzi ezin zaizkionak eta, egoki ez aritzeagatik, enpresa eraikitzaileari berari egotzi ahal zaizkionak.

Lehenengoan artean Hondakin Solidoen Tratamendurako Zentrora joateko errepide edo sarbidea dago; bide honek 2,6 kilometroko luzeera dauka eta hainbat akatsa ditu, honako zio hauek eraginik:

– Bidezoru-multzoak zabaltasun nahikoa ez izatea.

– Ibilgailuak proiektuan aurreikusitakoa baino zama handiagoaz ibiltzea.

– Bidearen hainbat puntutan drenaje-lanik ez izatea eta horrek ematen dio urari bideko plataforman sartzeko bidea.

Egoera hau zuzentzeko behin behinik sartu da 1996rako Toki Azpiegituren Obrei buruzko Planean 10,5 mpko inbertsioa Eska eta Zaraitzuko Mankomunitatearen alde.

Enpresa eraikitzaileari egotzi ahal zaizkion eta horren kargura zuzendu behar diren obra akasdunei dagokienez, honako hauek azpimarratu daitezke:

– 120 m.ko perimetroa duen lixibatuen uharka ixteko hesiaren egoera txarra.

Hondakindegia ontzia ixteko hesian akats solte batzuk.

– Egiturazko kalteak direla eta, hormigoi armatuzko erretena perimetrolean 50 bat m. dituen tarte bat oso egoera txarrean izatea.

Inguruabar hauen guztien berri idatziz eman zaio Eska eta Zaraitzuko Mankomunitateari, eta

hau, obren erredakzioan eta zuzendaritzan parte hartu duten ingenieroekin batera, arduratuko da antzemandako eraikuntzako-akatsa guzti-guztiak zuzentzeko enpresa eraikitzaileari galdatzeaz.

3.- Galdera honen lehenengo parte, aurreko idazatian erantzun da.

Aurrekoarekin bat etorritz, Toki Administrazio Departamentuak ez dio lanik agindu Ginés Navarro S. A. Eraikuntza enpresari.

Hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betez.

Iruñean, 1996ko uztailaren 24a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Javier del Castillo Bandrés

Euskararen irakaskuntzarako salbuespen erregimenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Marcotegui Ros Foru Parlamentari jaunak euskararen irakaskuntzarako salbuespen erregimenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko maiatzaren 31ko 32 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abuztuaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Javier Marcotegui Ros Foru Parlamentari jaunak euskararen irakaskuntzarako salbuespen erregimenari buruz egindako galdera, idatzizko erantzuna behar zuena, dela eta, Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Kontselariak honako hau jakinarazi nahi du:

HIZKUNTZ EREDUA ALDATZEKO EGINDAKO ESKAERAK.
ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDA.

1996-97 ikasturtea

Aurkeztutako eskaerak, guztira: 304
Onartuak: 269
Baztertuak: 35

IKASTURTEKA ETA MAILAKA:

Hasierako zenbakiak aurkeztu diren eskarien berri ematen du, eta honen ondoan, parentesi artean, dagoenak, baztertu direnen berri ematen du.

Haur hezkuntza

1. 24
2. 25
3. 28

Lehen mailako hezkuntza

1. 8 (2)
2. 17
3. 9 (5)
4. 12
5. 1
6. 60 (5)

Batxilergoa

1. 4
2. 5 (1)
3. 28

UBI 13

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

1. 7 (3)
2. 21 (18)

Lanbide Heziketa

I. Moduloa: 4

II. Moduloa: 17

III. Moduloa: 6

Irakaskuntza Ertainen Erreforma

Lehen Zikloa: 11 (10)

Bigarren Zikloa: 10

Hizkuntz eremuka:

Eremu euskalduna: 67 (14)

Eremu mistoa: 208 (25)

Eremu ez euskalduna: 39 (6)

1995-96 ikasturtea

Aurkeztutako eskaerak, guztira: 472

Onartuak: 449

Baztertuak: 23

Hizkuntz eremuka:

Eremu euskalduna: 111

Eremu mistoa: 285

Eremu ez euskalduna: 76

1994-95 ikasturtea

Aurkeztutako eskaerak, guztira: 443

Onartuak: 409

Baztertuak: 34

Hizkuntz eremuka:

Eremu euskalduna: 130

Eremu mistoa: 221

Eremu ez euskalduna: 92

Eta hau guztia jainarazi nahi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezarritakoa betez.

Iruñean, 1996ko uztailaren 18a

Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Pedro Burillo López

Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaz NUPeko agintaritza organoek egindako arauketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Marcotegui Ros Foru Parlamentari jaunak euskararen eta euskarazko irakaskuntzaz NUPeko agintaritza organoek egindako arauketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko maiatzaren 24ko 30 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abuztuaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Jesús Marcotegui Ros Foru Parlamentari jaunak, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaz NUPeko agintaritza organoek egindako arauketari buruzko galdera, idatzizko erantzuna behar zuena, dela eta, Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Kontseilariak ondorengo hau jakinarazi nahi du:

1.- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gobernu Batzordearen erabaki guztiak ez zaizkio

Nafarroako Gobernuari jakinarazten, Unibertsitatearen barneko antolamendu eta ordenuari dagozkionak, bere autonomiaren arabera.

Alabaina, eta galderan aipatzen den erabakiak bere garrantzia eduki dezakeela kontuan harturik, eta martxan jarriz gero hainbat ondorio etor litekeen, baita Gobernuarentzat berarentzat ere, Gobernuak erabakiaren berri badauka.

2.- Gobernuak Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentuko Idazkaritza Teknikoari onartutako erabakiari buruzko txostena eskatu dio, baita erabakia indarreko legeriarekin bat ote datorren jakiteko txostena ere. Txostena ezagutu ondoren, Gobernuak beharrezkotzat jotzen dituen urratsak emango ditu.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezarritakoa betez.

Iruñean, 1996ko uztailaren 18a

Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Pedro Burillo López

“Club Deportivo Balamar-Señorío de Zuasti” gizonezko saskibaloitaldearen balizko desagerpenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Alberto Catalán Higuera Foru Parlamentari jaunak “Club Deportivo Balamar-Señorío de Zuasti” gizonezko saskibaloitaldearen balizko desagerpenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko ekainaren 21eko 40 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abuztuaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Honako hau izenpetzen duen Hezkuntza, Kultur, Kirol eta Gazteri Kontseilariak, Alberto Catalán Higuera Foru Parlamentari jaunak, idatzizko erantzuna eskatuz, “Club Deportivo Balamar-Señorío de Zuasti” gizonezko saskibaloitaldearen balizko desagerpenari buruz egindako galdera dela eta, hurrengo erantzun hau igorri du:

Egindako galderak erantzun baino lehen, aipatu behar da Balamarek dituen arazoak eta kirol modalitate horretako eta beste batzuetako taldeek dituztenak antzekoak direla, hau da: ikusle gutxi joaten dela eta kostu ekonomikoak eskuan diren baliabideak baino handiagoak direla.

Azken arazo hori, Espainia guztian gertatzen baita, kirol taldeak galtzea ekartzen du maiz, duten historia edo kirol planteamendua edozein dela ere. Horrelakoak ugari bezain deigarri dira saskibaloitalde eta eskubaloitalde. Hori horrela izanda ere, badirudi dagozkion federazio eta talde-elkarrekin egoera ez dutela kontrolatzen eta baliabideen eta gastuen artean dagoen aldeak gora egiten duela.

Ari garen kasuan esan behar da “Club Deportivo Balamar-Señorío de Zuasti” delakoa EBA ligan ari dela lehian, lehiaketaren bigarren mailan, alegia, babestaileen laguntzarekin, taldekideen ahaleginarekin eta Erakundeetako programetan eskeratu daitezkeen laguntzarekin. 95-96 denboraldiko helburu zuten ACB ligara igotzea, Espainiako saskibaloitaldearen maila gorenera. Emaitez, ordea, ez dute horretarako biderik eman eta zegoen dibisioari eustea baino ez zuten lortu, jaisteko aldi jokatu ondoren.

Hori guztia gertatu bitartean, mailen berregituraketa handia eta eztabaidatua gertatu zen. Maila berria sortu zen, LEB delakoa, haren eskakizunak erabat lojikal kanpokoak zirelarik, kontuan izanik saskibaloia zorretan sartua zegoela eta baliabide berriak lortzeko zailtasunekin, izan ere, maila berri horretara iritsi ahal izateko 80 milioi pezetako fidantza behar da eta 50 milioiko aurrekontua (Balamarek, esate baterako, 30 milioiko aurrekontua du, dena barne).

Gainera, oraingo EBARI gagozkiolarik, kirol merezimenduengatik Balamari dagokion maila, alegia, garrantzizko mugak ezarri dira taldeko plantilaren adinean eta osieran.

Testuinguru horretan, hauxe ere gerta daiteke: Balamar taldeak LEB ligara bildu ezinik, ulertzeko moduko arrazoiengatik, EBA ligan, dagokion kirol mailan, partetik ez hartzeko erabakia hartzea.

Hori gertatuz gero, badira maila horretan talde horren lekua hartzeko prest diren beste talde batzuk. Hain zuzen ere, komunikabideek berria jaso dute Maristas saskibaloitaldeak (Balamar sortu zuen kirol hitzarmenaren partaidea da: Baloncesto Larraona Maristas) interesa duela.

1.- Apirilko lehen astean taldeko ordezkariak izandako bileran, LEB berrian parte hartzeko baldintzak aurkeztu zituzten ordezkariak. Halaber, euren planteamendua agertu zuten, eta Gobernuari beti etorri da bat horrekin, alegia, 50 milioiko aurrekontua bermatuko duen babestailea lortu beharra.

Bi eskari egin zizkion Balamarek Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuari: babestaileen bilaketan laguntza ematea eta, aurkituz gero, Nafarroako Gobernuak ematea 80 milioiko fidantza.

Lehenengo eskariari jaramon egin eta bilerak izan ziren babestaile izan zitezkeenekin. Bigarrenari buruz, hasiera hasieratik esan zitzaizkien ezinezko zela orduko aurrekontuekin.

2.- Balamareko ordezkariak hartu eta atenditu egin ditugu hala eskatu duten bakoitzean. Are gehiago, haiekiko lankidetzazintzoa eta positiboa izan dela aipa daiteke -esate baterako, NKGIK laguntza eskatu zuten, eta eman egin zuten, goi mailako lehiaketarako laguntzak emateko deialdia ebazterakoan-.

3.- Ez da inongo neurririk aurreikusi Saskibaloiko Espainiako Federazioak emandako arau berrien ondorioz, talde honek dagokion mailan, EBA ligan, parterik ez hartzea erabakitzen badu. Lehen esan bezala, berria jaso dugu Iruñeko beste talde batek hartuko lukeela "kirol toki" hori Nafarroako saskibaloian.

4.- Hasteko, azpimarratu behar da babestaileei laguntza emateko zerga-neurriak, 1989an hasiak, bakarrak direla Estatuan, eta kirol talde hauek beti izan dutela Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren etengabeko laguntza kirol babestaileak bilatzeko garaian.

Zerga desgrabazio neurrien emaitza zail da ebaluatzen. Eragile asko sartzen dira babestaileen erabakian: laguntza neurriak, eta badira hala-koak; kirol proiektua; proiektuak duen gizarte eta zabalkunde oihartzuna; laguntza eman behar zaion taldearen gizarte irudia; gure enpresari-zaera; eta abar.

Edonola ere, gizarte intereskotzat jotako babesaren neurria gero eta handiagoa da, 1992an 26.779.170 pezeta izatetik, 1995ean 76.075.608 pezeta izateraino iritsi baita. Hala ere, laguntza horiek ez dira behar beste erabiltzen: jakitun gaude babes handia duten taldeek ez dutela gizarte intereskotzat jotzen haien jarduera, ondorioz, haien babestaileek ezin dute ehuneko 15eko desgrabaziorik lortu; horixe bera gertatu zen "Balamar-Señorio de Zuasti"rekin, ari garen taldearekin, alegia, 94-95 denboraldian.

Azkenik, goi mailako lehiaketari buruzko kirol politikaz denaz bezainbatean, argi eta garbi esan behar da Balamarekin, edo antzeko egoeran diren beste batzuekin, puntu bakarra dagoela bat ez etortzeko: goi mailako lehiaketarako zuzeneko laguntzei ematen zaien aurrekontu-zatia. Gainerako programetan -bekak, laguntza medikoa, fede-

razio programak, kirol jokoak, eta abar- adostasuna dago eta elkarlaguntza.

Gaur egun, gehienez 12 milioi jasotzen dituzte goi mailan lehiatzen diren taldeek NKGItik, haiekin guztiekin eta Iruñeko Udalarekin adostatutako deialdi publikoaren bitartez. Laguntzon gehienezko kopurua 60 milioi pezeta da, hurrengo aurrekontu kontusailaren kontura: "Taldea eta elkarteendako laguntzak, kirolean aritzeko". 99.146.000 pezeta du, guztira (gainerakoa beste maila batzuetako taldeei laguntzeko erabiltzen da).

Administrazioak laguntza eman behar du, eta halaxe egiten du, aipatu zuzeneko laguntzen bitartez, instalazioekin, sustapen eta hobekuntza programekin, kirolariei laguntza ekonomiko eta medikoa eskainiz, eta abar. Alabaina, guztion ustea da aipatu taldeen dirusarrerek inoiz ez dutela izan behar Administrazioa iturri bakar edo nagusi.

Kontuan har bedi Balamarek berak bakarrik, saskibaloiko bigarren mailan aritzeko, 90 milioi eskatzen dizkiola Administrazioari, eta kirol arrakasta lortu eta lehenengo mailara, ACB ligara, igoz gero 400 milioi liratekeela. Eta fidantzaz bakarrik ari gara.

Ondorioz, gure ustea da Administrazioa bide horretatik eramatea (berehala eman beharko litzaieke laguntza bera C.A. Osasunari, edo San Antoniori, edo beste batzuei) ez dela ez zuzen ez egoki.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoa betez.

Iruñean, 1996ko uztailaren 11n

Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Pedro Burillo López

Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) antolaketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) antolaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin

agintzen da. Galdera hori 1996ko maiatzaren 10eko 26 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abuztuaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Honako hau izenpetzen duen Hezkuntza, Kultur, Kirol eta Gazteri Kontseilariak, Carlos Cristobal García Foru Parlamentari jaunak, idatzizko erantzuna eskatuz, Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) antolaketari buruz egindako galdera dela eta, hurrengo erantzun hau igorri du:

1.- Gaur egunera arte, Nafarroako inongo ikastetxerik, ez publikok ez pribatuk, ez du jaso baimen berarizkorik haur hezkuntzako lehen zikloko irakaskuntzak emateko.

Horri gagozkiolarik, gogoratu behar da irailaren 5eko 153/1994 Foru Dekretuak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorriari buruzko urriaren 3ko 16/1990 Legean bilduriko irakaskuntzak aplikatzeko beste egutegi bat onetsi baitzuen Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzeko, bere 3. artikuluan, hauxe dio:

“3. artikulua. Haur Hezkuntza

1. Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloari dagozkion irakaskuntzen ezarpen orokorra 1991-92 ikasturtean hasi eta horrekin batera, hiru, lau eta bost urteko haurren Eskolaurreko Hezkuntzari dagozkion kurtsoak iraungi dira.

2. Egutegi honek indarra duen epean osatuko da Haur Hezkuntzako urrats osoaren antolamendu eta ezarpena.”

Hortik ateratzen da (3. art. 2. puntua) 2.000. urterako (hamar urteko epea, 1.990etik 2.000.era), Departamentuak antolatu eta ezarri behar duela Ikastetxeetan (dagokienetan) Haur Hezkuntzako etapatik falta dena, hau da etapa horretako Lehen Zikloa (0 eta 2 urte bitartean). Gaur egunera arte ez du egin, ordea.

2.- Aipatu arauteriaren aurrean esan behar da, Departamentuak bere esku dituen txostenen arabera, aurreko ikasturtean, 1995-96an, bi urteko ia ia laurehun ikasle eskolatu dela Foru Komunitate honetan legez onetsitako haurtzaindegietatik kanpo, diruz lagundutako ikastetxe pribatu, ikastola eta ikastetxe publikoetan.

Eskolatze horretarako erabili diren bideak anitz dira: Ikastetxe pribatuak, haurtzaintzako ikasgelekin; onetsi gabeko ikastetxeak; baimenik gabeko udal haurtzaindegiak; norbere kudeaketa egiten zuten guraso taldeak; udalei lokalak uzten zizkien ikastetxe publikoak eta abar.

Toki batzutan, urte beteko ikasleak (oinez ikasi bezain laister) hartzen ari dira zentro horietan (ez dira haurtzaindegiak, zehazki); hartara, haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak sortzen dira,

egitez, indarreko legeriak ezarritako baldintzak bete gabe.

Egoera horren aurrean, zuzendaritza talde berria Hezkuntza Departamentura iristeaz batera, 1995eko abuztuan, alegia, antzeman egiten da hiru urte baino gutxiagoko ikasleak badirela, legetik at. Aspalditik gertatzen ari zen hori eta inork ez zuten inongo neurririk hartu.

1995eko irailaren bukaera aldera, eta Zuzendaritari Nagusiaren aginduz, Ikuskaritza Zerbitzuak galdeketa lan azkarra egin zuen aipatu eskolartzea noraino heltzen zen jakin ahal izateko. Urriaren 2rako bazegoen lehenengo ikuskapen txostena, eta osatuz joan da aurtengo otsailaren hasiera arte.

Hona Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak lortutako datu zehatzak:

Herria	Zentroa	Ikasleak
Tutera	Ikast. Argia	26
Altsasu	Ikast. Iñigo Aritza	17
Etxarri	Ikast. Andra Mari	21
Lakuntza	Ikast. Lakuntza	2
Arbizu	Ikast. Arbizu	3
Lakuntza	I.P.	6
Etxarri	I.P.	11
Burlata	Amor de Dios	14
Burlata	Regina Pacis	19
Atarrabia	Angel de Aralar	40
		(urte betekoak, 12)
Bera	I.P.	(urtarriletik aurrera onartu ohi ditu)
Bera	Sgdo. Corazón	(urtarriletik aurrera onartu ohi ditu)
Lesaka	I.P.	(urtarriletik aurrera onartu ohi ditu)
Lesaka	Ikast.Tantirumairu	6
Zangoza	Ikastola	20
Ilunberri	I.P.	6
Ilunberri	Ikastola	6
Viana	Ayuntamiento I.P.	27
Viana	Ikastola	2
Aiegi	Mater Dei	8
		(urte betekoak, 19)
Lizarra	Ikast.Lizarra	30
Lodosa	I.P.	10
Lodosa	La Milagrosa	ikasgela bat
Lodosa	Ikastola	4
Iruñea	Sta. Catalina	20
		(urte betekoak, 20)
Valtierra	Ntra. Sra. de Nieva	14
Uharte	Miravalles	1
Iruñea	Mª Auxiliadora	2

Horren zenbaketa egin ondoren:

Ikastoletan: 137 ikasle.

Ikastetxe pribatuetan: 184 ikasle

Ikastetxe publikoetan: 60 ikasle.

Guztira: 381 ikasle.

3. Galdera horren erantzunak denboran atzera egitea eskatzen du.

Esan daiteke 1990/91 ikasturtean, hau da, LOGSE ezarri aurrekoan, haurtzaintza (2-3 urte) emateko baimena zuten 45 ikastetxe pribatu bazi-rela, eta hiruk baino ez zutela 3 urtetik gorako haurrak eskolatzeko baimena

Haurtzaintza emateko baimena zutenetatik, 1990/91 ikasturtean, 13k baino ez zuten bi urteko ikasleak eskolatu.

1991/92 ikasturtetik aurrera, haur hezkuntzako 2. Zikloaren (3-4-5 urte) ezarpen orokorraren urtea, 1995/96 ikasturtera arte, haurtzaintza emateko baimena, eta beraz, 2 urteko ikasleak eskolatzeko, zuten 45 ikastetxeetatik ia denak birsailkatu dira haur hezkuntzako ikastetxe gisa, dagozkion foru aginduen onarpenaren bitartez (ikastetxeko bana); horietan, beren beregi uzten dira indarrak gabe aurreko baimenak. Ondorioz, ulertu egiten da ikastetxe guztiok galdu egin dutela 2 urteko ikasleak matrikulatzeko legezko eskubidea.

Bost ikastetxek bakarrik, hots, Castejongo "Sagrados Corazones", Huarteko "El Pilar", Iruñeko "María Auxiliadora", "San Miguel de Aralar" eta "Santo Angel"ek, erabili dezakete bi urteko ikasleak eskolatu edo matrikulatzeko eskubidea, haur hezkuntzako ikastetxe gisa birsailkatu gabe daudelako oraindik. Bost ikastetxe horietatik, ordea, bik utzi egin diote jardunari ikastaro honen bukarran (1995/96): Castejongo "Sagrados Corazones" eta Iruñeko "María Auxiliadora"k; batek, "San Miguel de Aralar"ek, utzi egingo dio lehen eta haur hezkuntzako ikastetxe izateari hurrengo ikasturtea (1996/96) bukatzen denean; beste batek, Huarteko "El Pilar"ek, haur hezkuntzako ikastetxe gisa birsailkatzeko asmoa agertu du eta galdu egingo luke aipatu eskubidea. Ikastetxe bakarra geratuko litzateke, beraz, Iruñeko "Santo Angel de la Guarda", gaur egunera arte birsailkatu gabe (2.000. urtean bukatzen da birsailkatzeko epea).

Ondorioz, bi urteko haurrak eskolatzeko (matrikulatzeko) eskubidea izan dezaketen 5 ikastetxeetatik, hiru itxi egin dira edo ixtear daude, eta gainerako bietariki, bat aurki birsailkatuko da eta

Iruñeko "Santo Angel"ek bakarrik eutsi diezaioke bere egungo egoerari 2.000. urtera arte.

4.- Aipatu ikasleak eskolatzeko arau-baldintza egokirik ez dagoenez, Departamentuak erabakia hartu zuen, 96-97 ikasturterako eskolatzeko kanpaina hasi orduko, haur hezkuntzako ikastetxeei gogorarazteko 1993an jaiotako eskariak baino ezin zituztela onartu ikasketak hasteko.

Ondorioz, irailean aztertuko da legea bete ote den.

Hezkuntza, Kultur, Kirol eta Gazteri Departamentuak, hala ere, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren bitartez, 96-97 ikasturterako ekintza planean sartu baitu, badu asmoa 0-3 urte bitarteko aldiaren arauketari ekiteko. Zenbait arrazoi dira horretarako:

– Egun diren kasuei legezko irtenbidea emateko, alegia, 2. galderaren erantzunean aipatu direnei, izan ere, aurrea hartu diote arauari eta baldintza ezegokietan sortu dira, batzuetan, eta ez dirudi administrazioaren zehapen-ekintza hutsa egokia denik.

– LOGSEk berak dioena, arazoari heltzeko gehieneko epea ezarri baitu, epe laburragoan arautzeko aukera baztertu gabe.

– Gizartearen eskaria, haurtzaindegiek egun eskaintzen duten postu-kopurua baino askoz handiagoa, hala Nafarroako hirietan nola herri handi eta ertainetan. Departamentuak badu eskaera honen berri, zenbait kasutan, udalek jakinarazita, eta premiazkoa da, egun ematen ari zaizkion erantzunak arau eta legez kanpokoak edo atipikoak baitira.

Esandakoa gorabehera, Departamentuak badu asmoa ikerketa zehatza egiteko 0-3 urte arteko etapa arian-arian (eta epe luzean, orokorrean) ezartzeak erakarriko lituzkeen ondorioei buruz (gogoratu behar da, jakina, etapa ez dela derrigorrezkoa). Ikerketak jorratu beharko ditu ezarpenaren kostu ekonomikoak (altuak izan daitezke) eta haurtzaindegien arloan eragingo duen birmoldaketa handia.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoa betez.

Iruñean, 1996ko maiatzaren 28an

Hezkuntza, Kultur, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Pedro Burillo López

G Sails:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Parlamentuko Plantila Organikoa 1996ko urtarrilaren 1ean

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abuztuaren 19an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatu-tuak, bere 14. artikuluan, ezarri du plantila organikoa eta Biltzarraren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda urtero onetsi beharra:

Hori horrela, ERABAKI Da:

1go. Nafarroako Parlamentuko Plantila Organikoa, 1996ko urtarrilaren 1ean, onestea. Ondoren paratzen da:

a)Funtzionarioak:

	Kopurua	Maila	Izendapen askea	Esklusibitatea	Batera-ezintasuna	Lanpostua
IDAZKARITZA NAGUSIA						
Legelari Nagusia	1	A	X	55		75
Mahaiko eta Bozeramaleen Batzarreko Idazkaria						
Buru Administratiboa (1)	1	C	X			30
ZERBITZU JURIDIKOAK						
Legelariak	3	A		55		30
ZERBITZU NAGUSIAK						
Burua, Teknikari diplomatua	1	B		55		10
Teknikari diplomatua	1	B		55		
Administrariak (1)	4	C				20
Ofizial Teknikaria (1)	1	C		55		
Gelazain Nagusia						
Gelazain Nagusia (1)	1	D				25
Gelazainak (1)	9	D				15
PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA						
Prentsa Burua	1	A		55		40
Itzultzaileak	3	A		55		
Transkriptoreak (1)	5	C				15
Protokolo Burutza						
Buru administratiboa (1)	1	C				30
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA						
Artxibo eta Liburutegi Burua	1	A		55		10
Liburutegi Laguntzailea eta Dokumentalista	1	B			35	
Administraria (1)	1	C				20
KONTUHARTZAILETZA ETA EKONOMI GAIETARAKO ZERB.						
Kontuhartzailtza Burua	1	B		55		25
Administrariak (1)	2	C				20

b) Aldi baterako langileak.

Kopurua	Lanpostua	Izendapen askea
1	Lehendakaritzako Kabineteko Burua	X
1	Lehendakaritzako Idazkaria	X
1	Beste Kargu Izendatuen Idazkaria	X

(1) C eta D mailetako langileek badute 1995eko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeko Hamargarren Xedapen Gehigarrian ezarritako osagarria. Ekitaldi honetan jotzen duena zera da: dagokion mailaren hasierako soldataren %12 eta %15, hurrenez hurren.

2gn. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1996ko abuztuaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 1995eko abenduaren 31n

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abuztuaren 19an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zue, besteak beste:

1go. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 1995eko abenduaren 31n, onestea. Ondoren paratzen da:

Izen-abizenak	Taldea	Gradua	Lanpostuak	Administrazio egoera
IDAZKARITZA NAGUSIA				
RAZQUIN LIZARRAGA, M. M.	A	4	Legelari Nagusia	Jardunean
Mahaiko eta Bozeramaleen				
Batzarreko Idazkaritza				
ALFARO ERVITI, M.C.	C	5	Buru administratiboa	Jardunean
ZERBITZU JURIDIKOAK				
BERMEJO GARDE, M.	A	4	Legelaria	Zerb. bereziak
DIEZ LAGO, P.	A	4	Legelaria	Jardunean
PULIDO QUECEDO, M.F.	A	3	Legelaria	Jardunean
ZERBITZU NAGUSIAK				
CERRO PAUL, F.J. DEL	B	5	Zerb. Nag. Burua	Jardunean
LARRAÑETA LIZARRONDO, M.V.	B	7	Teknikari diplomatua	Jardunean
ARDAIZ EGÜES, A.	C	3	Administraria	Zerb. bereziak
BEAR SANZ, C.	C	2	Administraria	Jardunean
DIAZ DE RADA TURUMBAY, J.C.	C	5	Administraria	Jardunean
ECHEVERRIA LECUMBERRI, L.	C	2	Administraria	Jardunean
EQUIZA MAQUIRRIAIN, J.	C	3	Ofizial Teknikaria	Jardunean
Gelazain Nagusia				
ANSORENA URRIZA, A.	D	3	Gelazain Nagusia	Jardunean
ARIZCUREN REY, M.A.	D	3	Gelazaina	Jardunean
CARLOS RAMIREZ, J.M.	D	3	Gelazaina	Jardunean
ENECOIZ SEGURA, F.	D	1	Gelazaina	Jardunean
MARTINEZ ORDUÑA, M.J.	D	2	Gelazaina	Jardunean
OZCARIZ PALACIN, I.	D	1	Gelazaina	Excedencia
TORRES IBARROLA, J.M.	D	3	Gelazaina	Jardunean
VENTURA ARBILLA, A.I.	D	3	Gelazaina	Exzedentzia
BETE GABE	D		Gelazaina	
BETE GABE	D		Gelazaina	

PRENTSA, ARGITALPEN**ETA PROTOKOLO ZERBITZUA**

GIL MARTINEZ, C.J.	A	3	Prensa Burua	Jardunean
ALONSO FOURCADE, J.R.	A	2	Itzultzailea	Jardunean
AMORRORTU AMARICA, A.	A	2	Itzultzailea	Jardunean
ZABALTA PEREZ-NIEVAS, X.	A	1	Itzultzailea	Ezedentzia
ARANAZ MARTI, C.	C	2	Transkriptorea	Jardunean
HUARTE CAMPION, A.I.	C	3	Transkriptorea	Jardunean
PALMA ROMERO, F.	C	3	Transkriptorea	Zerb. bereziak
SAENZ GARCIA, M.C.	C	2	Transkriptorea	Zerb. bereziak
SANTIAGO SEGOVIA, I. DE	C	2	Transkriptorea	Jardunean

Protokolo Burutza

HUALDE ARBIZU, N.	C	6	Buru Administratiboa	Jardunean
-------------------	---	---	----------------------	-----------

ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA**DOKUMENTAZIO ZERBITZUA**

FORTUN PEREZ DE CIRIZA, L.J.	A	4	Artxibo eta Lib. Burua	Jardunean
MITXELENA ENBIL, I.A.	C	2	Administraria	Jardunean

KONTUHARTZAILETZA ETA**EKONOMI GAIETARAKO ZERB.**

ZULET RECALDE, F.	B	3	Kontuhartzaitza Burua	Jardunean
FERNANDEZ GELOS, M.V.	C	3	Administraria	Jardunean
LEZAUN JUANIZ, M.	C	3	Administraria	Zerb. bereziak

2gn. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitarata dadin agintzea.

Iruñean, 1996ko abuztuaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen osaketa

AKATS ZUZENKETA

1996ko ekainaren 28ko 42 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen osaketa. Akatsa antzeman denez gero, ondoren paratzen da Parlamentari Talde horren osaketa zuzena:

Colín Rodríguez, Aladino

Eguren Apesteguía, M^a Dolores

Pinilla Baigorri, Inmaculada

López Mazuelas, Manuel

Ezpeleta Martínez, José María

Sánchez Turrillas, Javier

Catalán Fabo, Francisca

Apesteguía Jaurrieta, María Asunción

Cristóbal García, Carlos

Platero Alda, Juan Andrés

Ausejo Mozún, Ignacio

Iruñea, 1996ko irailaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.700 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 125 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 160 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--